

IX SEMINARIO · IX. MINTEGIA

**EDUCACIÓN, HEZKUNTZA,
ARTES Y ARTEAK ETA
CIUDADANÍA HIRITARTASUNA**

EMAKUMEEK KULTURA
SORTZEN DUTE ·
ELLAS CREAN CULTURA



HEZKUNTZA, ARTEAK ETA HIRITARTASUNA IX. MINTEGIA

2026ko maiatzaren 22a, ostirala

Ordutegia: 10.00 - 14.30

Guggenheim Bilbao Musearen Auditoriumean

UN Etxea-Asociación del País Vasco para la UNESCOk bat egiten du UNESCOren Heziketa Kultural eta Artistikoaren Nazioarteko Astearekin, **Hezkuntza, Arteak eta Hiritartasuna IX. Mintegia** ospatuz. Aurten, emakumek kultura arloan egiten dituzten lanak eta ekarpenak izango ditu hizpide. Mintegia 2026ko **maiatzaren 22an** ospatuko da goizeko **10.00etatik 14.30era** Guggenheim Bilbao Museoko Auditoriumean (Abandoibarra etorbidea, 2).

Mintegi honek emakumek kultura arloan duten erabateko parte-hartze eraginkorra goraiatu nahi du, sortzaile, bitartekari, hezitzaile, kudeatzaile eta giza-eraldaketarako agente gisa burutzen duten lana aitortuz. Espresio, esperientzia eta ikasketa kultural zein artistiko anitzetarako bidezko sarbidea ziurtatzea oinarrizkoa da bizitza kulturean parte-hartzeko, berataz gozatzeko, ekarpenak egin ahal izateko eta banakako zein taldeko ongizatean aurrera egiteko. Honek genero-ikuspuntua garatzen duen heziketa kultural eta artistikoa bermatzea dakar, eskoletan eta bestelako hezkuntza gunee arautu, ez arautu zein informaletan. Hezkuntza mota honek egitura-desparekotasunak eztabaidatuko ditu, erreferente femenino anitzak bistaratuko ditu eta arlo kulturean zein artistikoan emakumek jarduera profesionalak eta bokazioak errotu ahal izatea erraztuko du.

Mintegiak, UN Etxeak antolatuta, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren eta Guggenheim Bilbao Museoko TOParte programaren babesa ditu.

1. Mintegiaren ikuspuntua eta nazioarteko esparrua.

2021ean, UNESCOren Kontseilu Exekutiboak heziketa kulturala eta artistikoak ikuspuntu komunitik jorratzeko deia egin zuen. Horretarako, ikerketa, politika-analisiak eta mundu mailako kontsulta-prozesua jarri zituen martxan. Ekimena 2024an bukatu zen UNESCOren Heziketa Kultural eta Artistikoaren inguruko Mundu-konferentziarekin, non UNESCOren Heziketa Kultural eta Artistikorako Esparru berria onartu zen. Estatu Kideak zein Estatu

Bazkideak Esparru berria betetzen laguntzeko, UNESCOk *Heziketa Kultural eta Artistikorako UNESCOren Esparrua. Aplikazio Gida* (UNESCO, 2026) argitaratu zuen, ekintzara bideratutako tresna praktikoa gisa.

Gidak zera eskaintzen du: oinarri kontzeptualak, galdera orientatzaileak, etorkizunerako emaitzak eta nazio zein herri mailan programak, estrategiak eta politikak diseinatzeko eta ezartzeko erabilgarri izan daitezkeen praktikak eta gomendatutako ekintzak. Heziketa kulturala eta artistikoa oinarritzko osagaitzat jotzen du gizarte bidezkoagoak, jasangarriagoak eta sormen handiagoak eratzeko orduan.

Herritar guztiek kalitatezko heziketa-esperientziak jasotzeko sarbidea ziurtatu behar dela defendatzen du, gehienbat desparekotasun egoeran dauden pertsonen kasuan. Hori lortzeko, kulturen eta kulturaren bitartez, heziketa arloan esperientzia kultural eta artistikoak sustatu behar dira, heziketa praktikoen bitartez (“eginez ikasi”) komunitate-ekimenak helburu dituztenak. Horrez gain, nahitaezkoa da “herriko erakundeekin itunak lortzea, herri, nazio zein nazioarteko mailan eraginkortasuna hobetuko duten jardunbide egokiak moldatu eta elkar banatzeko.”

Askotan, kultura eta hezkuntza bi esparru normatibo ezberdin gisa hartu izan dira. Ikuspuntu holistikoak, ordea, euren arteko lotura eta garapen indibiduala zein gizartekoa taxutzeko duten ahalmena aitortzen ditu. Praktikan, kultura, arteak eta hezkuntza integratzeko, hezkuntza eta kultura arloetako konpromezuaz gain (...), interesa duten alderdi publikoetako eta gizarte zibilaren parte hartzea ere beharrezkoa da, ekonomia, ingurugiroa, azpiegiturak, teknologia, hiri-plangintza, turismoa, osasuna, gizarte inklusioa, gazteriaren konpromezua, genero berdintasuna, herri indigenen eskubideak eta kirolak bezalako arloetan, eta baita sektore pribatuarena ere. (UNESCO, 2026)

Heziketa eta kultura arloek aktiboki egin behar dute lan genero diskriminazioaren, aurreiritzien, eduki kaltegarrien eta indarkeriaren aurka, heziketa-esperientzia inklusibo eta ekitatiboak bermatzeko.

Mintegi honetan, Esparruaren Aplikazio Gidan egiten den galderarekin bat egiten dugu:

Nola sustatzen dira ekitatea, inklusioa eta diskriminazio eza heziketa kultural eta artistikoan, genero desparekotasunari eta guztion aukera-berdintasuna bermatzeari ekiten dioten iniziatibak barne hartuta?

Eta bestelako galderak ere proposatzen ditugu: Zenbateraino hartzen dute parte historikoki azpi-ordezkatuta egon diren kolektiboetako emakumeek eta kideek eduki, metodologia eta hizkuntza kulturen eraketan? Zenbateraino baldintzatzen dituzte zainketek, prekaritateak edo adinak emakumeek ibilbide artistiko edota kulturala garatzeko dituzten aukerak? Zer nolako ardura du heziketa kultural eta artistikoak desparekotasunak ekiditeko orduan? Nola sor daitezke esperientzia-, identitate- eta gorpuztasun-aniztasunarentzat seguruak diren heziketa-guneak? Zer nolako etorkizuna eskaini dezake kulturak heziketa-prozesuei ikuspuntu feminista eta interseksionala gehitzen diegunean?

2. Helburu orokorra eta helburu espezifikoak.

Helburu orokorra

Elkarrizketarako eta ikasketarako elkargunea sortzea instituzioentzat, profesionalentzat, hezkuntza-komunitatearentzat, esparru kulturalarentzat eta sozietate zibilarentzat. Bertan, arlo kulturalan emakumeen parte-hartze osoa, ekitatiboa eta anitza bermatzeko erronkak, ardurak eta aukerak identifikatuko dira, eskubide kulturalak eta heziketa artistiko eta kulturalaren ikuspuntutik.

Helburu espezifikoak

- Bizitza kultural eta artistikoan emakumeen sarbidea, parte-hartzea, aitortza eta profesionalizazioa baldintzatzen dituzten egiturazko desparekotasunei buruz kritikoki hausnartzea.
- Generoaren eta insterseksionalitatearen ikuspuntutik, heziketa artistiko eta kulturalak (esparru arautu, ez arautu eta informalean) aukera-berdintasuna ziurtatzeko, estereotipoak zalantzan jartzeko eta imaginario kulturala handitzeko orduan duen erantzukizuna aztertzea.
- Sorkuntzan, bitartekaritzan, hezkuntzan, kudeaketan eta kultura-gobernantzan emakumeen parte-hartzea sustatzen duten esperientziak, praktikak eta erreferenteak ezagutzera ematea, gehienbat ikuspuntu komunitariorik.

3. Behin behineko programa

10.00 - 10.10	IRISTEA ETA ERREGISTROA
10.10 - 10.30	ONGI ETORRIA Eusko Jaurlaritzako, Guggenheim Bilbao Museoko eta UN Etxeako ordezkariak
10.30 - 11.15	IREKIERA PONENTZIA (konfirmatzeke)
11.15 - 11.30	ATSEDENA <i>Dame 1 Minuto de Kulturako</i> irabazleen bideoak eta EDART Manifestuaren irakurmena
11.30 - 12.00	ELKARRIZKETA Lorna Biermann López (komunikatzailea, artista eta kultura kudeatzailea) eta Begoña Guzmánekin (UN Etxeako Kultura Arduraduna)
12.00 - 13.00	ESPERIENTZIA-MAHAIA: TOKIKO HEZIKETA ARTISTIKOA ETA KULTURALA. Jemima Cano . Doos Colectivo eta Mitusu-Haurrentzako eta gazteentzako antzerkia. Estitxu Moral Osa. Loraldia eskola Garazi Arrizabalaga Cabrerizo. Durangoko Arte eta Historia Museoaren zuzendaria eta OndarHez, Euskal Ondare Hezitzaileen elkarteko kidea Dinamizatzaileak: Yannick Vergara y Begoña Guzmán.
13.00 - 13.15	ONDORIAK ETA ITXIERA.
13.30 - 14.30	ANTZERKI PEDAGOGIAKO TAILERRA: GORPUTZA, EKINTZA ETA ERALDAKETA. Lorena Pazos Rojo.

4. Debaldeko izen-ematea.

Mintegian izena ematea debaldekoa izango da eta Guggenheim Bilbao Museoaren webgunearen bitartez egin beharko da: <https://tickets.guggenheim-bilbao.eus/es/396-visitaguiadas-actividades/13046-seminario-un-etxea/info>

Gainera, 10 leku daude Lorena Pazos Rojosek burutu behar duen antzerki- tailerrera: Taller de pedagogía teatral: Cuerpo, acción y transformación.

Tailerrean parte-hartzea debaldekoa izango da eta izena emateko hurrengo formularioa bete beharko da: : <https://forms.gle/KYEtwjSFFFs3jW6ZA>

5. Biografiak

Lorna Biernmann López



Komunikatzailea eta kudeatzailea hamar urte baino gehiagoko esperientziarekin. Emakumeekin, LGTBIQ+ taldeekin, giza-, herri- eta landa-elkarteeekin eta migratutako pertsona taldeekin egin izan du lan. Diseinuko, argazkigintzako, bideoko eta arte garaikideko ikasketak ditu. Bere esperientzia komunikazio-prozesu, gizarte- eta ingurune-erantzukizun, gatazka-konponketa eta gerra zein behartutako lekualdatzeetako biktimak oinarri dituzten lanetan oinarritu da. Alharaca Radio Feminista, Wikitoki eta Entretejidas (Zehar Errefuxiatuekin) bezalako proiektuetan parte hartzen du.

Jemima Cano



17 urte zituenetik, mota guztietako proiektu kulturalak sustatu ditu. 2008an Bilbora etorri zen eta bertan Doos Colectivo-a sortu zuen Eva Guerrerorekin batera, dantza eszenatokitik ateratzeko asmoz. Harrezkero, dantza garaikideko eta bestelako proiektuak sortu dituzte, dantza audientzia berrietara hurbiltzeko asmoz. 2013tik Baratza aretoko kidea da eta 2018tik dantza arloa babesteko tresnak eratzen dituen Espacio Punta de Fugako kide ere bada. Gainera, aholkularitza lanak burutzen ditu kultura-egiturentzat, nazioarteko proiektuak laguntzen ditu eta mintegiak eta topaketak proposatzen ditu audientzien, jasangarritasunaren eta kultura kudeaketaren inguruan. 2025etik, Mitusu-ren agindua hartu du, arte eszenikoak eskoletara hurbiltzeko.

Estitxu Moral Osa



Arte dramatikoaren munduan aditua, eszenaren magia hezkuntzara eramatea erabaki zuen, antzerkia haurren garapen pertsonal eta sortzailearen bidelagun bihurtuz. Hamarkada batez lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleekin aritu da sormenaren bidez emozioak, harremanak eta adierazpen gaitasuna lantzen. Azken bost urteotan, Loraldia Eskolan ari da euskal kulturaren bihotza astintzen, transmisioaren indarretik abiatuta haurrek sortutako ikuskizun koloretsu eta bizietan.

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo



Artearen Historian lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean. *Conservación y restauración de bienes culturales. Preservación y conservación del patrimonio histórico* ikasketak egin zituen eta baita Kultura Kudeaketako masterra (Divulgación Dinámica) ere. Kultura elkarte eta museo desberdinetan lan egin du, batez ere hezkuntzan. 2016tik Durangoko Arte eta Historia Museoko zuzendaria da. Gainera, komisario lanak egin ditu 14 erakusketatan, besteak beste: Picasso: *Durangotik 'Guernica'ra* (2017); *Durangaldeko emakume artistak* (2018) eta *Mari Puri Herrero* (2021). OndarHez elkarteko kidea da eta komunikabide desberdinetarako idazten du; batez ere, artea eta feminismoa bezalako gaiei buruz.

Lorena Pazos Rojo



Lorena Pazos Rojo giza-ekintzarekin eta arte eszenikoekin lotura duen profesionala da. Gaur egun, antzerki-irakasle lanetan aritzen da hainbat eskolatan eta, gainera, casting zuzendari lanak ere burutzen ditu hainbat ekoiztetxerekin. Ikasketak burutu ditu berdintasunean, gatazkak ebazteko teknikan eta antsietatea kudeaketan. Antzerkiaren esparruan, formakuntza jaso eta ibilbide luzea du. Gainera, antzerkia gizarte-eraldaketarekin lotzen duten hainbat ekintzatan eta heziketa-prozesuetan hartu du parte.

Yannick Vergara



Bilboko Artebin hasi zuen bere aktore-formakuntza eta Madrilen jarraitu zuen Adán Blackekin (Theatre for the People). Ikusentzunezko bere lehen lana "Goenkale" izan zen eta, gerora, "Vaya Semanita Cambio Radical", "La víctima nº8", "Allí Abajo", "Anfitrioi berezia", "Alaba zintzoa" eta "Alardea" bezalako proiektuetan ikusi ahal izan dugu. Antzerkian, "Txitxarra eta inurria", "Amamaren memoria" eta "La casa de Bernarda Alba" antzezlanetan parte hartu du besteak beste. Gaur egun, bikoizketa eta lokuzio lanak ere burutzen ditu eta *Gestión y Emprendimiento de Proyectos Culturales* masterra bukatzen ari da UNIR-en.

Begoña Guzmán Sánchez



UN Etxea- UNESCO sustatzeko Euskal Herriko Elkarteko Kultura Arduraduna. Nazioarteko ibilbide luzea du UNESCOri lotuta. Kultura eta garapenerako ekimenak eta politikan zein kultura-eskubideengan eragina izan duten prozesuak zuzendu ditu. Aditua da kultura kudeaketan, aliantza-sorkuntzan eta gizarte eraldaketan, eta ondare kulturalaren, museoen eta artxiboen esparruan egin du lan, memoriak hiritartasuna eraikitzeko eta kultura-aniztasuna aitortzeko duen garrantzia azpimarratuz. Hainbat argitalpenen egilea da eta heziketa lanak burutzen ditu kultura, jasangarritasuna eta giza eskubideen alorretan. Gaur egun, kultura-eskubideak eta feminismoa politika publikoetan nola txertatzen diren aztertzen ari da.

Antolatzailea

UN Etxea – Asociación del País Vasco para la UNESCOk antolatu du, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren eta Guggenheim Bilbao Museoko TOParte programaren **babesarekin**.

Informazio gehiago

Begoña Guzmán Sánchez

UN Etxea – Asociación del País Vasco para la UNESCO

Kultura arduraduna

b.guzman@unetxea.org

(+34) 94 427 64 32